**GEHIGARRIA** KILIBARREN • **KULTURA** TXANKAKUA MERKATARI ELKARTEAREN III. JAIALDIA
**KIROLA** HAUNDI FUTBOL TALDEAREN AURKEZPENA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko irailaren 26a/XI. urtea/458. zkia



## Elgoibar negutegiaren lehen fruituak

"LAGUNEGAZ, BIDIEK LABURRAU" (esaera zaharra)

# IXEKI

## SUKALDE ETA BAINUAK

thdzid F. ge441⁴4%

- Proiektu eta berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa
- Armairu enpotratuak
- Ate eta solairuak
- Elektrogailuak

5 u teko ı rmea



banatzaile ofiziala

Arrillaga z/g - Elgoibar    Tel. 943 74 43 47









# 40 URTE
# 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA







## 28 iARREN astekaria, astakeria ;

*elgoiBARREN* astekaria izan zen Elgoibarko Izarraren bigarren etapako lehen proiektua. Gerora BARREN izenarekin ezagutu duguna izan da, akaso, bigarren etapako proiekturik ezagunena. Txitxilibakiori betirako agur esan eta aldizkari sendo eta profesionala egitea erabaki genuen 1991n. Hasierako asmoa hilabetekaria egitea bazen ere, Arrasateko Joxe Arantzabalek bultzatuta, astekaria egitea erabaki genuen. Batzuen ustez, astekaria baino gehiago astakeria zen egitera gindoazena, baina ez ginen beldurtu eta aurrera egin genuen. Ez gara hartutako erabakiaz damutu.

Hasiera gogorra izan zen. Guk uste baino lan handiagoa eta serioagoa zen astero-astero hogeita zortzi orriko astekaria egin eta Elgoibarko etxe gehienetan banatzea. Baina lanerako gogoak eta ilusioak lagunduta, oztopo eta zailtasun guztien gainetik pasa ginen. Lehen asteetan BARREN lotsati irten zen kalera, beldurrez, kolorerik gabe. Herritarrek zelako harrera egingo zioten kezkatuta. Baina berehala konturatu zen elgoibartarrek estimatzen zutela. Bai herrian bizi zirenek eta baita kanpoan bizi zirenek ere. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, aun˜era egiteko indarra eman diguna.

Eta hasieran txikia eta lotsatia zena, handitzen joan da poliki-poliki. Denok bezala, BARREN ere asko aldatu da hamaika urteotan. Kolorea hartu du. Baina hasierako espiritu bera dauka. Loreak duela pare bat aste zioen moduan, "herriko gertakarien kronista" izan da BARREN. Elgoibarren gertatutakoaren eskaparatea.

Hamaika urteko bidea egin dugu eta beste hamaika urte betetzeko prest gaude. Zuekin hatera. Ah, eta baliteke laster sorpresa bat baino gehiago izatea.

*Imanol Larrañaga*

irit7in



## Larrua harriaren kontra

Mataforaz beteta dago Julio Medem-en lan polemikoa. Metaforaz, eta hitzez. Eta irudiz. Gainontzean, lan txukuna dela esango nuke. Eta zintzoa ere bai.

Euskal Zinearen egunean ikusi nuen nik 'Euskal Pilota, Larrua harriaren kontra'. Astearte iluntzean, hain justu. Ordurako zinegile euskalduna aita izana zen, eta jaso beharreko belarrondoko guztiak jasoak zituen. Medem-ek, lanaren aurkezpen laburra egin zuen emanaldia hasi aurretik. "No os asusteis, que no es para tanto" -hasi zen esaten. "Este trabajo no es m.s que un Ojaro que quiere volar, que vuela por donde puede, o por donde le han dejado hacerlo. No es mas que una mirada. Un camino". Dokumentala ikusten ari nintzen bitartean, Medem-en hitzek oihartzun egiten zidaten barruan. "Bide bat, begirada bat. Besterik ez". Jakina dela begirada bat, hitz ezberdin askorekin eraikitako begirada. Eta begirada den heinean, subjetiboa da. Baina zintzoa, eta garbia. Ez du iruzur egiten. Ez du inor iraintzen. Hala ere, arrazoi dute dokumentalean hainbat pertsonaren iritzia agertzen ez dela esaten dutenek. Oso bistan dago hori. Medem-ek berak ere hasiera-hasieratik argi esaten du. Hainbat lagunek ez du parte hartu nahi izan. Zergatik, beraz, horrenbeste zalaparta?

Lana ikusi dut, eta orain badakit zer dela-eta hainbeste zalaparta: Medem-ek hitzaren aldeko apustua egiten duelako, hitza delako proposatzen digun bidea.

Ainhoa 1,odoso

Atal hauek ez dira B egiterakoan, besteak-t

Kexak ............................................

motz motz ........................................ 8

gehigarria ........................................ 13

kiRolAk ........................................ 20

aGenda ........................................ 24

## UDALTZAINEK ZER ZAINTZEN DUTE?

Elgoibarko trafikoaren arduradunei:

Aspalditik Madalako zubitik irtetzeko kristonak eta bi egin behar ditugu egunero. Goizero N 634 errepidea hartzeko Maltzagaruntz ia ezinezkoa da arrisku gabe irtetzea. Orain egiten ari diren obrekin arazoak areagotu egin dira. Hala ere, inoiz ez dut aurkitzen udaltzainik bertan. Bitartean Txankakua zubian egunero daude bi udaltzain eta Sigman ere bai. Zergatik? Madalako zubian arrisku gutxiago al dago? Errepidea hankaz gora jarri dute eta obrak ondo seinalizatu gabe egonda ere ez da udaltzainik agertzen bertara.

Bestalde, Txarridunako bidegurutzean autoak edozein modutan aparkaturik egoten dira eta irteera oztopatzen dute gehienetan. Autoak traban jartzen dituzten gidariak patxada osoan egoten dira kafe bar hartzen eta egunkaria irakurtzen tabernan. Zergatik uzten dute udaltzainek halako nahaspila sortzen? Trafikoa erraztu nahi dute ala aurpegi handia duten gidariak babestu nahi dituzte? Zein izango da erantzulea zerbait larria gertatzen denean? Zalantzarik ez dezala izan zerbait gertatzen bada erantzukizuna berea dela eta kontuak eskatuko dizkiogula neurriak ez hartzeagatik. Bada ordua zerbait egiteko. Zentzudunak izan eta neurri egokiak hartuko dituzuela espero dugu egunero bertatik gabiltzan gidariok. Guztion onerako izango da eta guztiok eskertuko dugu. Ez dadila izan beranduegi.

A.A.G. - ENAP7553586H

## EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAREN AURREAN

Udalak, Jaurlaritzaren Hizkuntza Politarakako Sailordetzaren bultzadaz herrian plan hori aurrera eramateko asmoa azaldu du, eta lehendabiziko gauza esan behar dena da, aspalditik behar zela gizartea bere osotasunean kontutan hartuko duen normalizazio plan bat, orain arte eskolan batez ere, hartutako neurriak osagarritu beharra zegoelako. Hala ere, normalizazio plan hau Jaurlaritzak daraman hizkuntza politikaren barruan kokatu behar dugun zeinak lurralde zatiketa onartu duten, azken helburutzat elebitasuna jartzen duen, eskolan euskalduntzen ez duen A eredua mantentzen duen, administrazioan abian jarritako plana oso maila bajuan betetzen ari den jarraipen eskasa dela medio, komunikabideetan EITB nagusiki erdalduna sortu duen.

Euskal Herria kontutan hartzen duen hizkuntza politika batek lurralde guztietako biztanleen hizkuntza eskubideak izan behar ditu gogoan eta horretarako euskarak status ofiziala izan behar du Euskal Herri osoan eta euskaldunok izan behar dugu hizkuntza kontuetan erabakimena: gaur erabakimenik ez, ofizialtasunik ez, erasoa nonahi.

Bestalde, gutxien gutxieneko neurrietan administrazioak izan behar du euskaldunon hizkuntza eskubideak betetzen lehena, eta plangintza honetan ere lehentasuna izan behar du berari dagozkion alorretan neurriak hartzea: noizko osakidetzan, epaitegian euskara normalizatzeko plana?

Azkenik euskararen berreskurapenak normalizazio plan osoak eskatzen ditu, bai euskal hiztunoi erraztasunak emango dizkigunak zein erdaldunak euskaldunduz joateko neurriak, adibidez helduen euskalduntze alfabetatzea dagoen krisitik ateratzeko laguntzak ematea.

P.M. - 15357275-Z

## HIZTEGI TEKNIKO DELA ETA

Iraileko goiz batean lanera heldu eta Barren aldizkariko orri baten fotokopia mahai gainean utzi zidatela ikusi nuen, ni azkoitiarra izanik ez bainaiz Barreneko irakurlea. "Danobateko tailerreko hiztegi teknikoa dela eta" izenburua zuen idatzi bat zetorren bertan. Testua sinatzen duena ez dut ezagutzen, baina Danobateko bazkidea izanik jakinguraz irakurri nuen, aukera izan dugun beste bazkide guztiok bezelaxe pentsatzen dut. Irakurri ondoren, benetan txundituta geratu nintzen Felix Etxeberriaren arrazonamenduarekin.

Danobaten aspalditik izan dira euskararen alde egin dutenak, ez da ez hau gaurko kontua. Ahalegin hauek, kooperatibaren egoera desberdinen arabera, gora behera handiak izan dituzte urteetan zehar, baina egun zorionez, ondo errotuta dagoen euskara plan bat daukagu martxan eta fruituak ematen hasia da. Azkenengo Hiztegi Tekniko hau ere hortik birsortutakoa da, langileok osatzen ditugun euskara erabilera taldeetatik hain zuzen. Zuzendaritzak berriz, lan honek argia ikusteko baliabideak jarri ditu. Beraz, bakoitzak norberari dagokiguna eginaz bigarren hiztegia argitaratu dugu. Guztiona da, Danobatena da. Lehen ere hala izango zen, kooperatibak ekoizten zuena bazkide guztiena izango zen eta ez pertsona bat edo talde batena soilik...

1976an hiztegia argitaratu zutenek lan txalogarria egin zuten, guk 2003an hobetu asmoz ibili gara eta espero dugu etorkizunean ere lan honekin jarraituko dutenik izatea, ze azken finean Danobat bere osotasunerako eta euskararen mesedetarako gabiltza lanean eta ez geure buruari dominak jartzeko.

Pello Beristain
Danobateko langilea

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
.943744112
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Unguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodaso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 **ISSN 1139-1855**

ELGOIBARKO IZARIA
=1 1,11.71.11 1.1.6A1,11.

*Elgoibarko Udalak, Eusko aurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

it kutxa
zuri esker

IDANO BAT
MOUINAS XEPPANIEN,

GOITI
GRUPO DANOBAT

EFFARTA

## KEXAK

• Elgoibarko langile talde batek azaldu digunez, **Elgoibartik Bilborako autobusa kentzea ez dago ondo: "Egunero** joan behar izaten gara Bilbora lanera. Goizeko 8:00etan sartzen gara gehienok, eta ez daukagu Elgoibartik Bilbora zuzenean joateko autobusik. Urbanoa hartu eta Eibarrera joan behar izaten dugu lehenengo, eta handik Bilbora. Ez dago eskubiderik. Jende ugari joaten da egunero Bilbora, ikastera edo lanera, eta Udalak kontuan hartu beharko luke asunto hau. Elgoibartik Bilbora doan autobus linea beharrezkoa da".



• Herritar batek esan digunez, **udaltzainen jarrera ez da batere egokia: "Herri guztia obretan dago, eta lehen aparkatzea zaila bazen, orain zer esanik ez.** Autoa etxera eraman behar al dugu? Gainera, udaltzainek isunak jartzen dituzte! Nire autoan aurkitu nuen multa gazteleraz zegoen, eta akats ortografikoak zituen. Isunak euskaraz jarri beharko lirateke".



• Gizon batek azaldu digunez, **Mintxeta inguruan txakurrak solte ibiltzen dira, eta bertan korrika egitea oso zaila da:** "Jende askok Mintxeta ingurura eramaten ditu txakurrak buelta bat ematera, eta gehienetan solte eramaten dituzte. Txakur handiak izaten dira askotan, eta arriskutsua da. Korrika egitera joaten garenok, ezin izaten dugu lasai ibili, eta haurrek ere beldurra pasatzen dute. Txakurrak solte eramateko bozala ipini behar zaie, eta bestela katez lotuta eraman".

## TXALOAK

• **Herritar batek esan digunez, San Lorentzoko komunak oso txukun daude: "San** Lorentzon oso komun txukunak jarri dituzte. Beti daukate papera, usain ona eta garbi mantentzen dituzte. Herriko beste komunak ere horrela zaindu beharko lituzkete. Har dezatela exenplua".





# ELGOIBAR NEGUTEGIA

Gemma Agirregomezkorta eta Misqui taldeari buruz orrialdeotan hitz egin genuen azken aldian kontatu genizuen (2002ko ekainaren 14an) Elgoibar izeneko negutegia eraiki zutela Cuscon elgoibartarrek emandako diruarekin. Gemma etxera itzuli zenean negutegia eraikita, baina oraindik lurrik gabe zegoen "hango lurra oso lehorra eta antzua denez, lur beltza ekartzeko zain zeudela laga nituen". Pasa den martxoan itzuli zen berriro han eta hemen bildutako diruarekin. Perura itzuli zenean lurraren kolorea bakarrik zen beltza, gainontzean argia ikusten hasiak baitziren perutarrak. Hainbeste denbora eta izerdi kostatako negutegia hasia zen fruituak ematen: "Negutegia ikustean ezusteko galanta hartuko nuela aurreratu zidaten, baina haurren aurpegiak ikusteaz bat jabetu nintzen aldaketaz".

## ERA GUZTIETAKO BARAZKIAK

"Helduen %80ak zituen elikadura arazoak eta umeengan, berriz, %100ak zituen elikadura gabezia larriak. Elikaduraren oinarria Papa zen, altuera horietan hazten den barazki jangarri bakarretakoa baita, baina 3.500 metrotik gora ez da ezertxo ere hazten". Elgoibar negutegiari esker platereko osagaien zerrenda luzatzeko aukera izan dute eta barazki batzuk lehen aldiz probatzekoa: "bainak, tomateak, letxugak, azak, rabanitoak, piperrak, azelgak... danetarik landatzen dute".

## NORK JASOTZEN DU LAGUNTZA

2.000 pertsona inguru, 200 familia gutxi gorabehera, dira Elgoibar Negutegiak sortzen dituen onurak zuzenean jasotzen dituztenak. Jende hau guztia Sipascancha-Alta izeneko komunitatean bizi da, Cusco hiritik gertu. Gemmak azaldu digunez, haurrek egunero daukate ziurtatuta janaria eta nagusiak txandaka joaten dira 20 laguneko taldetan.

> "Helduen 1080ak zituen elikadura arazoak eta umeen To100ak"
>
> GEMMA AGIRREGOMWORTA

## BIZIMODU GOGORRA

Gurearekin alderatuz bizimodu gogorra daramate perutarrek, baina eurak ere halakoxeak dira, baldintza gogorrenpean bizitzera ohitu baitira. Sipascancha-Alta komunitatea 4.800 metroko altueran dago: "Komunitatea oso sakabanatuta dauden txabolez osatua dago eta haurrek kilometro mordoa egiten dituzte oinez. Panpinak dirudite urrutitik hanka hutsik datozela ikusten dituzunean. Adela izeneko andererio bati katarroak eragozteko kuleroak eramango nizkiela aipatu nion behin, neskatxek ez baititute barruko arroparik erabiltzen. Luxuzko artikulurik ez zutela behar erantzun zidan".

## DATORREN URTEAN...

Datorren urtean itzultzeko asmoa du Gemmak, baina asko jota bertan bi hilabete pasako dituela dio: " Udazkena zen han eta hotz handiak pasa ditut; 5 gradu zero azpitik. Osasun aldetik nahiko gaizki ibili naiz. Honetaz gain, hegazkin txartelak gero eta garestiagoak dira, 3.400 euro inguru, eta asko kostatzen zait dirutza hori aurreztea. Andre batek bidaia diputazioak ordaindu eta gero han soldata bat jasotzen nuela esan zidan duela gutxi, baina ez dago horrelakorik, inondik ere. Are gehiago, euren bizimodu berdina egiten dut han egoten naizen denboran".

Perutarrek gauza asko erakutsi dizkiote Gemmari, "hara joaten hasi





# LEHEN FRUITUAK EMATEN HASI DA







nintzenetik ez naiz erabat ezberdina, baina asko aldatuta itzuli naiz. Dauzkaten zailtasunak eta arazoak ikusirik bizitzarekiko daukaten jarrera gustuko dut, daukaten pazientzia, umiltasuna...". Hala ere, euskaldunok ba omen ditugu perutarrei erakusteko moduko gauzak, "proiektu berrietarako ideiak eta antolakuntza falta zaie, agian. Ez daude disziplinara ohituta. Bizitzak oso gutxi balio du han, edozein unetan hil egin baitaitezke, eta horrek badu eraginik".

## JAUNGOIKOAK NAHI ARTE

Desio bakarra du Gemmak, "Jaungoikoari urte batzutarako bizitza eskatzen diot, perutarrei luzaroan lagundu ahal izateko. Urtero Perura joanez eta kanpainak egiten jarraitzeko asmoa dut osasuna daukadan bitartean. Jende asko daukat han zain eta ezin ditut laga. Oso txikiak izan arren, *no nos dejes nunca* esaten didate haurrek. *Espero que dios me de vida al menos hasta que vosotros acabeis los estudios*, erantzuten diet nik".

## DIRUA BILTZEKO KANPAINA BERRIA

inu

Misqui taldekoak hasiak dira dirua batzeko kanpaina berriak ideiatzen: "Iaz nahiko erantzun eskasa izan arren, 3 enpresek bakarrik eman ziguten dirua, aurten ere herriko enpresei dirua eskatzeko asmoa dugu. Enpresa bakoitzean norbait itxulapiko bat jartzeaz arduratuko balitz, asko eskertuko nuke. Bestalde, oso ideia polita izan zuten Ikastolako haurrek iaz, ikasle bakoitzak euro bat eman baitzuen. Gabon Zahar ferian ere itxulapikoak kalera atera eta 1.400 euro batu zituzten. Ia aurten gainontzeko ikastetxeak ere animatzen dire. Lerro hauek aprobetxatuz deialdi bat egin nahi nieke".

### "Elgolbartar bat euro bat"



Kanpaina nagusia "elgoibartar bat, euro bat" izango da. Helburua, herritar bakoitzak euro bat ematea izango litzateke: "Badakit egoera ekonomikoa ez dela onena eta ezin dela gehiegi eskatu, baina orain arte emandako laguntzak gure herriaren izena urrutira eramateko balio izan du eta emaitzak begi bistan daudela uste dut. Negutegiaz gain, orain arte bidalitako diruarekin 60 haur eskolaratu dira. Haur hauek ez zeukaten eskolara joateko aukerarik eta orain argienek eskola pribatuetara joateko aukera ere izango dute". Iaz uste baino diru gutxiago jaso zuten eta Gemma jadanik eskolaratutako haurrek ikasten jarraitu ezingo zuten beldur zen.

## Deba Bailarako Haurrentzako XXIX. Perretxiko Lehiaketa izango da igande honetan, hilaren 28an, Plaza Handian

### Udako beroaren ondorioz, perretxiko mota gutxiago aurkez daitezke lehiaketara

Udan egindako beroak eragin zuzena izango du datorren igandean, hilaren 28an, izango den Deba Bailarako Haurrentzako XXIX. Perretxiko Lehiaketan. Perretxikoek giro hezea behar dute ondo hazteko, eta aurtengo udan tenperatura oso altua izan dugu, eta gainera, oso euri gutxi egin du. Hau guztia dela medio, aurreko edizioetan baino perretxiko mota gutxiago izateko arriskua dago. Hala ere, partaideen trebezia kontuan izan behar da, eta ziur, igandean sorpresaren bat izango dela.

Lehiaketa honetan Deba Arroko 15 urtez beherako perretxikozale guztiek har dezakete parte, taldeka nahiz bakarka. Partaideek Karakate Mikologi Elkartean eman beharko dute izena, irailaren 27ko iluntzeko 20:00ak baino lehen. Bestalde, perretxikoak egurrezko edo kartoizko bandejetan aurkeztu beharko dira Foruen Plazan, igandean, goizeko 10:00ak baino lehen. Perretxikoak izenik gabe aurkeztuko dira, A eta B sorta berezietakoak izan ezik. Kaxen sailkapena eta idazketa ezaugarri morfologiko hauen arabera egingo da: Laminak, tutuak, tolesturak, eztenak, eta beste hainbat forma diferente.



*Iaz 37 taldek aurkeztu zituzten perretxikoak.*

A eta B sorta bereziak

A sorta berezko perretxikoak jangarria eta bere antzeko pozoitsua nahastu daitezkeelako aukeratu dira. Sorta honetan, Amanita Phalloides (pozoitsua) eta Russula Heteropyilla (jangarria), edo Amanita Muscaria (pozoitsua) eta Amanita Caesarea (jangarria) aurkituko ditugu, besteak beste.

B sorta berezia, ordea, nahasteko arriskurik gabeko perretxikoek osatzen dute: Russula Vesca, Lepista Nuda, Boletus Edulis...

Epaimahaia

Aranzadi Z.E. Elkartekoek osatuko dute epaimahaia, eta ondorengo irizpideak izango dituzte kontuan: perretxiko desberdin guztiak puntuatuko dira, sorta berezietakoek puntuazio altuagoa izango dute, Amanita Phalloides (hilgarria) eta Entoloma Sinuatum (eskualde honetako intoxikazioen %80aren eragilea) bilduma onenek trofeo berezia jasoko dute. Azkenik, perretxikoaren hazkunde garai desberdinak azaltzen dituen sorta onenak ere, sari berezia jasoko du.

## San Migel auzoko jaiak ospatuko dira asteburu honetan



Gazteen Egunak inauguratuko ditu gaur, irailak 26, arratsaldeko 18:30etan San Migel auzoko jaiak, eta datorren astelehenera arte luzatuko dira. Poteoa bizikletan, gazte afaria, diskofesta eta streaptease-a izango dira gaurko ekitaldiak. Bihar, larunbata, kirola izango da protagonista: arratsaldeko 17:00etan hasita, Euskal Herriko arraza libreko artzain txakur txapelketako finala jokatuko da. Goizaldeko 1:00ak aldera, berriz, bolo txapelketa izango da. Igandean, irailaren 28an, Meza Nagusia izango da, eta arratsaldean idi demak. Astelehenean, San Migel egunean bukatuko dira auzoko festak. Meza Nagusia, bertso saioa, pilota partiduak eta auzotarren afaria, izango dira, besteak beste. Afal ostean, Gardoki taldearen erromeriak itxiko ditu 2003ko San Migel jaiak.

## San Roke auzotik datorren errekatxoa desbideratu egingo dute

Santa Ana eta Estazio kalean egiten ari diren obren helburua, San Roketik datorren errekatxoa desbideratzea da. Orain arte, Foruen Enparantzara iristen ziren errekatxo honen urak, eta frontoi azpitik ateratzen ziren Deba ibaira. Obrak hasita daude dagoeneko, eta hodi berriak jarriko dituzte, errekatxo honek dakarren ura, San Roketik zuzenean, Sigmako zubi azpia zeharkatuz ibairatu dadin. Hodi bera erabiliko dute ingurune honetako estolderiak biltzen duen ura kolektore berrira bideratzeko. Obra hauek trafiko arazo ugari sortu dituzte, baina langileak gogor ari dira lanean arazoak lehenbailehen konpontzeko.



## Bertsotan bat-batean jarduteko taldea osatu nahi da Elgoibarren

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, Udalaren laguntzaz, Elgoibarren bertsotan bat-batean jarduteko 8-10 laguneko taldea osatu nahi du. Dagoeneko 4 laguneko taldea dago, beraz, oraindik badago izena emateko aukera. Bertsoa gustatu eta bat-batean jardun nahi dutenek hartu dezakete parte, eta taldea osatzen bada, irakasle bat izango da taldea gidatzeko.

Astean bi orduko jardunaldiak eskainiko dira, eta prezioa 6 eurokoa izango da. Larunbat goizetan, 11:00etatik 13:00etara. Jardunaldiak urrian hasi eta maiatzera arte luzatuko dira.

Interesatuek Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean eman dezakete izena, bertara joanez, edo 943-74 16 26 telefonora deituz, datorren urriaren 3a baino lehen.



## Mufomi fosil eta mineralen museoak berriz zabaldu ditu ateak irailean

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik Mufomi fosil eta mineralen museoa. Asteburu eta jai egunetan, berriz, goizeko 11:00etatik eguerdiko 14:00etara. Hala ere, beste orduren batean bisitatu nahi dutenek, 943-74 11 31 edo 608 41 66 83 telefonoetara deitu eskatu dezakete zita. Mufomi museoa Pedro Muguruza Etorbideko eskola zaharretan dago.

## Folklore jaialdian eginiko Txankakuaren zozketako irabazleak ez dira agertu

Nazioarteko Folklore jaialdian, Txankakua Merkatari Elkarteak 60 euroko lau erosketa txeke zozketatu zituen, eta oraindik ez dira irabazle guztiak agertu. 073 (063 erreserba) eta 094 (045 erreserba) zenbakiak falta dira agertzeko. Sariak jasotzeko epea datorren irailaren 30ean amaituko da.

SUKATU S.COOP

iet•Pitonlw ss.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

M a I a p



0 r anat) eiltl@fflunw@2 '51

egunero 6:00
i rekitzen dugu

Glutialut

San Frantzisko, 60

### Gero eta haserre gehiago dago zapatu arratsaldetan Elgoibarren gertatzen denarekin

# IKUSTEN AL DIOZU IRTENBIDERIN ZAPATU ARRATSALDETAKO MOBIDARI



## FERNANDO SANTOS

57 urte, aurre jubilatua

Herritik kanpo, inor bizi ez den lekuan gazteentzako toki bat jartzea izan daiteke irtenbidea. Ez dagoenez, tabernetara, eta martxa dagoen lekura joango dira. Arratsaldez Elgoibarrera, cta gauetan Ermura.

## SANDRA LERTXUNDI

26 urte, ostalaria

Tabernetatik kanpo, gazte jendea entretenitzeko ekitaldi gehiago antolatu, eta beraiek bilduko diren lokalen bat egokitzea izan daiteke irtenbidea. Bitartean, tabernetara joaten jarraituko dute.





## AGUSTINA TORRES

51 urte, etxekoandrea

Soluzioa ez da erraza. Arazo serioa da, eta zikinkeriagatik baino gehiago, alkoholaren kontsumoagatik. Luzera arazo larriak sortuko ditu alkoholak. Udalak zerbait egin beharko luke.

## JOSE CORONADO

62 urte, aurre jubilatua

Nik ez, baina Udalak zerbait egin beharko luke. Etxetik jaisten garenean usain txarra egoten da alde guztietan, eta kalean ezin izaten gara Penagarria da.






## " " " "ISABEL BERMEJO

40 urte, etxekoandrea

Soluzioa zaila da, egunen baten amaituko da. Martxa beti egon da hemen, baina orain oso desmadratuta dago. 15 urteko alaba daukat, eta giro honetan murgiltzeak beldurra ematen dit. Ez dakit hau noren ardura den.

## ANDONI ALBERDI

70 urte, ,jubilatua

Udaletxiak eskua sartu bihar leuke. Madalan bizi gera, eta hango txixa usaina eta zaratia ezin dia aguantau. Gainera, zeozer esan ezkero, kontestazio txarrak jasotzen ditxugu. Bihar bada Ertzainak etorri biharko dia.



**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.**
**ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!**
**@ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA**

*eyvy otatiwunat teondo4 16 nte dete ametil eta*
*401~(OM4 te".414 cate dete Wffited*

**ARRAÑAGA**
AUTOESKOLA
**Tel: 943 74 10 11**

1 (..) I f rlAt V V(C 1 •

C.A.4 eS

osasund

cala

2003-IX-26

VICENTE ETA REMEDIOS

SURYA BELARDENDA




# MASAJEA, PREBENTZIOA ETA GURE BIZITZAKO OSASUN ITURRIA

Masajeak gure gorputzean sortu daitezkeen lesioak aurrez saihesteko balio du, eta bide batez, lehendik dauden lesioak sendatzeko. Gaur egun, terapia natural moduan kontsideratzen da masajea, eta ez dago lehen bezalako aurreiritzirik. Masajea gimnasia pasiboa da, eta jasotzen duenari hobekuntza bikoitza eskaintzen dio: batetik, gorputz osoko atsedena eskaintzen du, baina batez ere, masajea jaso duen zonaldearen atsedena, eta bestetik, ariketa fisikoa ordezkatzen du, odolaren barnetik kanporako eta alderantzizko zirkulazio egokia sortuz. Masajeak arnasketa, odolaren zirkulazioa eta digestioa hobetzen ditu, batez ere.
Bestalde, muskuluetan dauden sustantzia kaltegarriak garbitu eta zainetan barnera daitezen saihesten du, odol berri eta garbiak muskuluak garbitzen dituelarik.
Nerbioak erlaxatzen ditu. Gizarteko estresa, lo egin ezina eta antsietateak eragindako nerbio sistemarentzako terapia bikaina da masajea.
Beraz, masajea dieta egoki batez, krema, landare eta mineralez eginiko tratamenduekin uztartzen bada, emaitza bikainak lortu daitezke, lesio gogorrenetan ere bai.

<u>Masaje mota desberdinak daude:</u>

- Masaje terapeutikoa (lesioak, hausturak...)
- Erlaxazio masajea (estresa, antsietatea...)
- Drenaje linfatikoa (Depurazioa eta gorputzaren garbiketa)
- Erreflexoterapia podala (gorputz osoan dauka eragina)

Azken masaje mota hau, oso ezezaguna da jendearentzako, baina nire esperientzia propioari esker, zenbait gaitz sendatzeko oso egokia dela esan dezaket: estresa, loezina, idorreria, hilerokoaren desoreka...
Gorputzeko masajea, erreflexoterapia podalarekin uztartuz, gure gaixotasunak sendatzeko metodo bikaina da.

*Vicente Tercero*
*Masajista-naturopata*

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

# Osasun txokuak

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yogai
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

Iñaki **Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra**

# IMHko Heziketa Zikloetan ikasten duen neska kopuruak gora egin du

## Heziketa Zikloetako ikasturtea joan zen irailaren 12an jarri zen martxan

IMHko Heziketa Zikloetako 2003-2004 ikasturtea joan zen irailaren 12an hasi zen. Guztira 244 ikaslek eman dute izena eta aipatzekoa da, aurreko urteetatik matrikulatutako neska kopuruak gora egin duela. Aurtengoan matrikulatuen %12a izango dira neskak (aurreko bi urteetan %8 eta %10ekoa zen neska kopurua). Bestalde, ikasleen jatorri anitza dela-eta, (Elgoibartarrak %25a dira), Herri Institutuarekin elkarlanean, autobusak antolatu dira Ondarru, Mutriku eta Soraluzetik etorri ahal izateko.



Ikasleek Goi Mailako eta Erdi Mailako zikloetan eman dute izena. Goi mailakoetan, Proiektu Mekanikoen Garapena, Mekanizazio Bidezko Produkzioa, eta Industri Ekipoen Mantenimentua ikasiko dituzte, besteak beste, eta Erdi Mailakoetan, Mekanizazioa, emango dute. Arlo guztiak A eta D ereduetan egiteko aukera izango da. Ikasturtean zehar, bestalde, ikasleek gelan eta lantegian e-learning ikastaroak erabiliko dituzte , ohiko ikasketei laguntzeko.

# Ikasturte berriarekin batera, Elgoibar Ikastolak kirol eskaintza berria antolatu du



Elgoibarko Ikastolak, beste ikastetxeekin batera, partehartze zuzena dauka Elgoiharko eskolarteko jokoen antolakuntzan. Bertan, 8 eta 12 urte bitarteko ikasleei, eskolaz kanpoko orduetan kirolean jarduteko aukera ematen zaie; bestalde, beste hainbat ekintza antolatzen ditu, Ikastola o ikasle eta baita gurasoek ere, p e hartzeko.

6 a 8 urte bitarteko haurrentzat aurre trola antolatu dute. 8 eta 14 urte bitartekoentzat, berriz, Eskolarteko Jokoak. Astean ordubeteko bi entrenamendu saio izango dituz e, eta partiduak larunbatetan r—j-eleatuko dira.:.- Batxilergoko ' sleentzat, bestalde, atur Ekintza antolatu dituzte. mendizaletasuna ltzatzeko me i irteerak antolatuko zte hilero, 2 eta 16 urte bitarteko sle eta ho ien gurasoentzat. e talde, mar xoaren 13an Pilota g na ospatuk dute, eta apirilaren e n Haur Kro a izango da.

r
i riondOTABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15


INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

2003ko irailaren 26a/XI. urtea/98. zkia

## Euskaltegia martxan bigarren urtez In leikeren eskutik



Aurten ere, bigarren urtez, euskaltegia abian jarriko da In Leikek *an*tolatuta eta AEK eta Udala laguntzaile direla. Maila eta ordutegi ezberdinak (goizez, arratsaldez nahiz gauez) izango dira ikasleen zerbitzura helburu bakarrari erantzuteko: mendarotarrak euskalduntzea.

Langabetuek, 12 urtez azpiko seme-alabak dituzten gurasoek eta ikasleek erdia baino ez dute ordaindu beharko eta, gainera, klaseen %90era joanez gero, hasieran ordaindutakoaren %75a itzuliko zaie ikasleei. Iaz ere asistentziaren araberako beka sistema hau indarrean izan zen eta ikasleen geniengoak bete zueta aaterazt aute antolatzaileek.

Joan zen urtean 17 izan ziren euskara ikastera animatu zirenak eta pozik agertu dira antolatzaileak, epea oraindik zabalik egonik iazko ikasle kopurua gainditu baita. Euskaltegian izena emateko epea hilaren amaiera arte luzatuko da. Orama'ü'c garaiz zabiltza beraz!



JOSEMI RUBIO

Ingurukoekin euskaraz komunikatzeko beharra, euskara ikasteak sortzen didan poztasuna eta honetarako aukera etxetik gertu itatearen abantaila izan dira, batez ere, euskaltegian izena ematera bultzatu nauten arrazoiak. Bigarren urtea da aurtengoa, eta joan zen urteko csperientzia eta giroa ikusita, oso aherasgarria eta edonori gomedatzeko moduko aukera iruditzen zait.



ANA Mª SEIJAS

Nire ikasketekin zerikusia duten lanbide gehienetan eskatzen dutelako nahiko nuke EGA ateratzea. Ikastetxe publikoetako ateak irekita eduki ahal izateko ezinbestekoa da titulu hau.

## Bertso-afaria In leikek antolatuta

Datorren urriaren 3an bertso-afaria izango da Aizpe elkartean In Leikeren eskutik. Afaria gaueko 21:30etan izango da, eta prezioa, 20 eurokoa. Jexux Mari Irazu eta Igor Elortza izago dira lanean ari tuko diren bertsolariak.

## Mendi irteerak eta Kilometroak-erako autobusa

In Leikek igande honetarako eta urriaren 11 eta 12rako mendi irteerak antolatu ditu. Hilaren 28koan, Aizkorritik pasata, Otzaurtetik Arantzazurainoko ibilbidea burutzeko aukera izago dute mendizaleek. Urriko beste irteera aldiz Errioxa aldera izango da.

Bestalde, urriaren 5ean ospatuko den Kilometroak 2003rako ere autobusa antolatu du In Leikek.

## Yoga ikastaroa

Urriko lehen egunean hasiko da yoga ikastaroa Kultur Etxean. Klaseak astelehen eta asteazkenetan izango dira 15:00etatik 16:00etara. Interesatuek telefono hauetara dei dezakete: 943748593ra edo 635715503ra.

r,,,, KilisaRRen
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



# Anton Urreisti

## "Askotan musik

*Anton Urreisti Mendaron bizi den 43 urteko mutrikuorn, da. Hourra zenelik Muratu izan dute pintzel, iienzo eta paletek, eta beldurrik gabe esan genezake, berak pintenzen dituen koadrc)ek ematen diotela kolorea bere bizitzari ere. Damu ukilu txiki batez mintzo da pintura lanagatik baztertuta eduki duen urteez eta, harrotasunez, bere txikitako ilusioa errekuperam duen azken urte hauetako kmaz. Joan zen ostiraletik datorren igandera arte, Antonen kolore biziez zipriztinduko da Mendaroko Udaleko erakusketa aretoo. Gaur, 19:30etik 21:00e1ara zabalduko da erakusketa eta, asteburuan, 12:00etatik 14:00etara. Garaiz zarete, beraz, udazken hits eta tristea kolore bizi eta alaiz bustitzeko1*

**Noiz hasi zinen pintatzen?**
Txiki-txikitan. Eskolan akuarelekin pintatzen hasi nintzen eta umetan pare bat sari irabazi nituen. Gogoratzen naiz Luziano pintorea Mutrikura etortzen zenean nolako mirespenez egoten nintzen berari begira. Gero lanean hasi nintzen eta pintura pixka bat baztertuta eduki dut urte askoan, lanetik irtendakoan ezinezkoa baitzitzaidan kontzentratzea eta inspiratzea. Ez nuen ez denborarik, ez gogorik. Baina bizkarreko gaitz bategatik lana utzi behar izan nuenetik, berriro ere buru-belarri murgildu naiz gehien gustatzen zaidanean.

**Eta nolatan zaletasun hau?**
Mutrikuko osaba bat oso artista izan da beti marrazten, ezkerrarekin gainera, eta agian hortik etorriko zait afizioa, baina ni txiki-txikitatik erakarri nau arte honek.

**Nola sorlu zen erakusketa hau egitearen ideia?**
Nik, egia esan, ez nuen erakusketarik egiteko asmorik. Baina lagunek, andreak eta familiakoek beti esaten zidaten jarri egin behar nuela, eta azkenean konbentzitu egin ninduten. Beraiek bultzatu naute.

**lehendik beste erakusketaren batean parte hartu al duzu?**
1985ean Mutrikuko beste artista batzuekin batera erakusketa bat egin genuen, baina osterantzean, hau da nik bakarrik jarri dudan lehenengoa.

**Zer gai lantzen dituzu zure margolanetan?**
Denetik, baina gehien gustatzen zaidana itsasoa da; ura, itsasoa eta arrantza. Baina mendia ere berdin-berdin, mendia ere asko gustatzen zait.

> **"Gertatu izan zait amets baten erdian esnatu eta ametsetako irudiak pintatzen hastea ere"**

**Nola inspiratzen zara?**
Niretzat musika ezinbestekoa da pintatzeko orduan, eta ez musika lasaia, e? Heavy-a entzuten dut askotan. Kaskoak jantzi eta pintatzen hasten naiz, horrela kontzentratzen naiz. Inspiratuta egotea ezinbestekoa zait margotzeko. Askotan, egun osoa libre eduki arren ez dut ezer pintatzen, eta ohean sartu ondoren, gaueko ordubietan pintzela hartu eta gelditu gabe ekiten diot. Gertatu izan zait amets baten erdian esnatu eta ametsetako irudiak pintatzen hastea ere.

**Argazkietan oinarrituz pintatzen duzu?**
Bai, normalean bai, kanpora joaten naizenean beti eramaten dut gainean kamera. Hala ere, ez dut kopiarik egiten, gauzak nik ikusten ditudan bezala margotzen ditut, eta beti aldatzen dut zerbait. Pintatzen ari naizen bitartean harritu egin behar nau koadroak, kopiek ez didate ezer esaten. Gainera egunero ez da gauza bera berdin ikusten.

**Pintatzeko trebetasuna jaiotzetikoa da ala ikasi egin daiteke?**
Nik txikitatik banuen zerbait, irakasleek ere gurasoei arte ederrak ikasi beharko nituzkeela esaten zieten, baina garai hartan dirua behar genuen eta ezin zen... Hala ere, egia da egunetik egunera ikasten dela; eta oraindik asko daukat ikasteko. Duela urte batzuk egindako koadroei begiratzean akats pila bat topatzen dizkiet, baina gustura nago, nire hobekuntza prozesuaz kontziente bainaiz.

# heavy-a entzunaz pintatzen dut"





### Aho zapore ona utzi al dizu erakusketak?

